HIRI-HAZKUNDE FORMEN FITXAK (1960 arte)

5.1. PRAKTIKA

5.1. praktika taldeka izango da.

Hazkunde-forma bakoitzetik bi adibide adierazgarri alderatu behar dira (bakoitza din-A3 orri edo fitxa batean): Bat Urola bailarakoa (edozein herrikoa) eta bestea bailaratik kanpokoa (Euskal Herrikoa edo atzerrikoa).

Informazioa argitalpen ezberdinetatik eskura daiteke (liburuak, aldizkariak, arkitektura-gidak…).

Oraingoz, hazkunde-formak **1960. urtera arte bakarrik** ikertuko ditugu.

Din-A3 txostenak honako ezaugarriak beteko ditu:

	NOLA EGIN	ZER EGIN FITXA BAKOITZEAN
TXOSTENA (22 fitxa)	- Eskala: **libre** (zehaztu zein) - Tamaina: **A-3** - Formatoak: **CD**an edo e-postaz (PDF, 300 d.p.i.)	- Kokagunea herrian / hirian - Oinplano orokorra (behe-solairukoa bada, hobe; bestela, estalkiena) - Ebaketarik adierazgarriena - Argazkiren bat - Ezaugarri nagusiak (laburki)

Hurrengo hazkunde-formak bereiztu behar dira:

- Dorretxea
- Hiri-jauregia
- Erdi Aroko hiribildua
- Errebala
- Baserri isolatua
- Baserri multzoa (elizatea)
- XIX. mendeko zabalgunea
- XX. mendeko zabalgunea (1960. urtera arte)
- Lorategi-hiria (1960. urtera arte)
- Langile-auzoak (1960. urtera arte)
- Industria (1960. urtera arte)

Beraz, txosten bakoitzak 22 din-A3 orri edo fitxa (11x2) izan behar ditu.

EMATE-DATA: Otsailaren 26an eta 27an, taldearen arabera.